

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN  
TOKI ADMINISTRAZIOAADMINISTRACIÓN LOCAL DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

## Udalak

## AMURRIO

6293

**Behin betiko onarpena ematea Ekonomia Sustapen, Merkataritza eta Turismo Arloak antolatutako prestakuntza ikastaroak emateko zerbitzuagatik tasa ezartzeari eta tasa hori arautzen duen 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 22 zenbakiko eranskinari.**

Udalbatzak, 2010eko abuztuaren 9an egindako bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion ekonomia sustapen, merkataritza eta turismo arloak antolatutako prestakuntza ikastaroak emateagatik tasari eta tasa hori arautzen duen 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 22. eranskinari. Onarpenari buruzko erabakia ALHAOn argitaratu zen abuztuaren 20an, eta legez ezarritako jendaurreko informazio aldia igarota, erreklamaziorik eta proposamenik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da, halaxe xedatzen baitu martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 17.3 artikulua. Legegintzako errege dekretu horrek Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartu zuen.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 52. artikuluan, Toki Araubidearen Oinarri buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 eta 111. artikuluetan eta Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, oso-osorik ematen da argitara ALHAOn, indarrean sar dadin.

**“7.22 ERANSKINA. PRESTAKUNTZA IKASTAROAK EMATEKO ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

## 1. artikulua. Lege oinarria

Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, prestakuntza ikastaroak emateko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa ezartzen da.

## 2. artikulua. Subjektu pasiboa

Amurrioko Udalak lanerako prestakuntza edota birziklatze ikastaroetan matrikulatzen diren pertsona fisikoek ordaindu beharko dute prestakuntza ikastaroak emateko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa hau.

## 3. artikulua. Tarifa

1.- Ikastaro bakoitzarengatik ordaindu beharreko zenbatekoa ikastaroa hasi baino lehen ordainduko da. Amurrioko Udalak adieraziko duen banku kontuan egin beharko da diru sarrera.

2.- Lanerako prestakuntza ikastaroak: ikastaro bakoitza hasi baino lehen sortuko dira tasa guztiak, Amurrioko Udalak matrikula ordaintzeko finkatuko dituen egunetan.

3.- Birziklatze ikastaroak: ikastaro bakoitza hasi baino lehen sortuko dira tasa guztiak, Amurrioko Udalak matrikula ordaintzeko finkatuko dituen egunetan.

4.- Ikastaroa hasitakoan ez da tasa, inola ere, itzuliko. Tasak oso-oso ordainduko dira, ikaslea ikastarora joan gorabehera.

2010erako tasak ondokoak izango dira:  
Lanerako ikastaroa (gelan):

IKASTAROAREN ORDUAK	TASA
200 ordu baino gutxiago	20,00 €
200 eta 240 ordu bitartean	25,00 €
240 ordu baino gehiago	30,00 €

## Municipios

## AMURRIO

6293

**Aprobación definitiva de la imposición de la Tasa por la Prestación del Servicio de Impartición de los Cursos de Formación organizados por el Área de Promoción Económica, Comercio y Turismo y del Anexo 22 de la Ordenanza Fiscal nº 7, regulador de la correspondiente Tasa.**

El Ayuntamiento-Pleno, en sesión celebrada el día 9 de agosto de 2010, aprobó provisionalmente la imposición de la Tasa por la Prestación del Servicio de Impartición de los Cursos de Formación organizados por el Área de Promoción Económica, Comercio y Turismo, y el Anexo 22 de la Ordenanza Fiscal nº 7, reguladora de la correspondiente Tasa. Publicado dicho acuerdo, en el BOTHA de fecha 20 de agosto, y habiendo transcurrido el plazo de información pública legalmente establecido, sin que se haya presentado reclamación o sugerencia alguna, se entiende definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, según lo dispuesto en el art. 17.3 del Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales.

En cumplimiento de lo previsto en el art. 52 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento, en el art. 70.2 y 111 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local y el art. 16.4 de la Norma Foral 41/1989, Reguladora de las Haciendas Locales, se lleva a cabo su publicación íntegra en el BOTHA, para su entrada en vigor.

**“ANEXO 7.22 TASAS POR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE IMPARTICIÓN DE LOS CURSOS DE FORMACIÓN**

## Artículo 1. Fundamento legal

De conformidad con lo establecido en el artículo 20 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la ley reguladora de las Haciendas Locales, se establece la Tasa por la Prestación del Servicio de impartición de los cursos de formación.

## Artículo 2. Sujeto pasivo

Se hallan obligadas al pago de la tasa por la prestación del servicio de impartición de los cursos de formación las personas físicas que se matriculen en los cursos de formación ocupacional y/o reciclaje organizados por el Ayuntamiento de Amurrio.

## Artículo 3. Tarifa

1.- Los importes resultantes de cada curso serán abonados mediante el ingreso en la cuenta bancaria que al efecto señale el Ayuntamiento de Amurrio, antes del inicio de cada curso.

2.- Cursos de formación ocupacional: las tasas se devengarán en su totalidad antes del inicio de cada curso y en las fechas que el Ayuntamiento de Amurrio destine al abono de la matrícula.

3.- Cursos de reciclaje: las tasas se devengarán en su totalidad antes del inicio de cada curso y en las fechas que el Ayuntamiento de Amurrio destine al abono de la matrícula.

4.- En ningún caso se contempla el reintegro de la tasa una vez iniciado el curso. Las tasas se pagarán en su totalidad, independientemente de los días que el alumno acuda al curso.

Las tasas que registrarán para el año 2010 serán las siguientes:  
Curso Ocupacional (en aula):

HORAS POR CURSO	TASA
Menos de 200 horas	20,00 €
Entre 200 y 240 horas	25,00 €
Más de 240 horas	30,00 €

## Lanerako ikastaroa (tailerrean):

IKASTAROAREN ORDUAK	TASA
200 ordu baino gutxiago	30,00 €
200 eta 240 ordu bitartean	35,00 €
240 ordu baino gehiago	40,00 €

## Birziklatzea (gelan):

IKASTAROAREN ORDUAK	TASA LANGABETUENTZAT	TASA LANA DUTENENTZAT
20 baino gutxiago	10,00	25,00
20 eta 30 ordu bitartean	15,00	30,00
31 eta 40 ordu bitartean	20,00	35,00
40 ordu baino gehiago	25,00	40,00

## Birziklatzea (tailerrean):

IKASTAROAREN ORDUAK	TASA LANGABETUENTZAT	TASA LANA DUTENENTZAT
20 baino gutxiago	20,00	35,00
20 eta 30 ordu bitartean	25,00	40,00
31 eta 40 ordu bitartean	30,00	45,00
40 ordu baino gehiago	35,00	50,00

Datozen urteei begira, ordaindu beharreko zenbatekoari gehitu egingo zaio EAEko Estatuko Kontsumoko Prezioen Indizeak jasaten duen aldaketa, Espainiako Estatistika Erakundeak argitaratutako emandakoa aurreko urtean.

## 4. artikulua. Matrikulazioa

Matrikulazioa eta ordainketa egiteko epeak hasi baino lehen, izena aurretik emateko epea irekiko da. Aurreko epe hori bukatu eta gero, aurretik izena emandakoen zerrendak Refor Amurrio Enpresaldeko iragarri taulan edo Amurrioko Udalak erabakitzen duen beste toki batean argitaratuko dira eta eskabide gehiegi egonez gero lekuen zozketa egingo da. Aurretik izen ematerakoan izan den ordena ez da lekuak esleitzeko irizpidetzat hartuko. Amurriko erroldatutako pertsonak lehentasuna izango dute erroldatuta ez daudenen aurretik. Matrikulazioak benetako balio izan dezan tasa ordaindu izana egiaztatzen duen banku agiria aurkeztu beharko da; betiere matrikulazio epearen barruan.

## 6. artikulua. Materiala

Tailerrak egiteko beharrezko materialak Amurrioko Udalaren konturakoak izango dira.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau ikastaroa hasi eta gero indarrean sartuko balitz, ordenantza indarrean sartzen den egunean sortuko litzateke tarifa.

## AZKEN XEDAPENA

Prestakuntza ikastaroak emateko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen 7.22 zenbakiko eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du harik eta aldatu edo indargabetzen den arte.”

Erabaki honen aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, halaxe xedatzen baitute Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 19. artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azararen 26ko 30/1992 Legeak 107.3 artikuluan. Halaber, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez ditzakete.

Amurrio, 2010eko irailaren 27a.– Alkatea, PABLO R. ISASI AGUIRRE.

## Curso Ocupacional (en taller):

HORAS POR CURSO	TASA
Menos de 200 horas	30,00 €
Entre 200 y 240 horas	35,00 €
Más de 240 horas	40,00 €

## Reciclaje (en aula):

HORAS POR CURSO	TASA DESEMPLEADOS	TASA EMPLEADOS
Menos de 20	10,00	25,00
De 20 a 30 horas	15,00	30,00
De 31 a 40 horas	20,00	35,00
Más de 40 horas	25,00	40,00

## Reciclaje (en taller):

HORAS POR CURSO	TASA DESEMPLEADOS	TASA EMPLEADOS
Menos de 20	20,00	35,00
De 20 a 30 horas	25,00	40,00
De 31 a 40 horas	30,00	45,00
Más de 40 horas	35,00	50,00

Para los años sucesivos, el importe a abonar se incrementará con la variación que sufra el IPC, general de la CAPV, publicado por el Instituto Nacional de Estadística para el año anterior.

## Artículo 4. Matriculación

Se abrirá un plazo de preinscripción previo al plazo de matriculación y de pago efectivo. Cerrado dicho plazo de preinscripción se publicarán en el tablón de anuncios de Refor Amurrio Enpresaldea, o en cualquier otro lugar que el Ayuntamiento de Amurrio disponga, las listas de preinscritos y se procederá al sorteo de plazas en el caso de exceso de solicitudes. El orden de preinscripción no es criterio para la adjudicación de plazas. Las personas empadronadas en Amurrio tendrán prioridad sobre las no empadronadas. La matriculación se hará efectiva sólo tras la presentación del documento bancario que certifique el pago de la tasa y dentro del plazo de matriculación establecido.

## Artículo 6. Material

Los materiales necesarios para el desarrollo de los talleres corren a cargo del Ayuntamiento de Amurrio.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En caso de que la presente Ordenanza entrase en vigor con posterioridad al inicio del curso, la tarifa se devengará el día de la entrada en vigor de la Ordenanza.

## DISPOSICIÓN FINAL

El Anexo nº 7.22 regulador de la tasa por la Prestación del Servicio de impartición de los cursos de formación, entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA y permanecerá vigente hasta que se apruebe su modificación o derogación.”

Contra el presente acuerdo, en aplicación de lo dispuesto en el art. 19 del Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales y 107.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, los interesados podrán interponer directamente recurso contencioso administrativo ante la Sala de los Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOTHA, sin perjuicio de interponer cualquier otro recurso que estimen pertinente.

Amurrio, 27 de septiembre de 2010.– El Alcalde, PABLO R. ISASI AGUIRRE.